

PRENTSA OHARRA

Guggenheim Bilbao Museoak *Sortu eta sendatu: zortzi urtez Urte Berrirako asmo onak opatzen* erakusketa irekiko du

Museoko hezkuntza gune berriak Gabonetako zorion txartelen aukeraketa bat hartuko du; txartelak azken zortzi urteotan Gurutzetako ospitalean egondako haurrek egindakoak dira

Abenduaren 20tik urtarrilaren 6ra hartuko du Guggenheim Bilbao Museoak 2007tik aurrera Gurutzetako ospitaleko ikasgelako haurrek sortutako Gabon txartelen erakusketa bat. *Sortu eta sendatu: zortzi urtez Urte Berrirako asmo onak opatzen* Guggenheim Bilbao Museoaren eta Osakidetzaren lankidetzaren emankorraren arteko emaitza da; lankidetzaren bidez, Guggenheim Bilbao Museoko familientzako jardueretako batzuk Gurutzetako eta Basurtuko ospitaletara eramaten dira.

Erakusketan 24 irudi daude, azken 8 urtetan Gurutzetako ospitaleak Gabon txarteletarako erabili dituenak. Horrez gain, haurrek inspirazio-iturritzat baliatutako Guggenheim Bilbao Museoa aurkeztutako artelanen irudiek osatzen dute erakusketa.

Haurrek sortutako lanetan, besteak beste, honakoak ikus daitezke: abendualdiko koro bereziak, *Artearen historia guztiak: Vienako Kunsthistorisches Museum* erakusketarekin lotutakoak; Gabonetako jaki tipikoak, alabaina tamaina harrigarrikoak eta ezohiko materialez egindakoak, *Claes Oldenburg: hirurogeiko hamarkada* erakusketarekin zerikusia dutenak; eta Gurutzetako ospitaleko eraikinerako proposatutako interbentzioak, Daniel Burenen Salbe zubiko lana abiapuntu eta Gabonak gai dituztenak.

“Sortu eta sendatu-Sana y crea” tailerrak Gurutzetako eta Basurtuko ospitaletan

Guggenheim Bilbao Museoak, Osakidetzak eta BBKk elkarrekin antolatzen dituzte haurrentzako tailer hauek 2007tik; hala betetzen dute gizartearekiko eta hezkuntzarekiko konpromisoa.

Gurutzetako eta Basurtuko ospitaletako ikasgeletan egoten diren 3 eta 16 urte bitarteko haurrek parte har dezakete sormen tailer hauetan. Guggenheim Bilbao Museoko hezitzaileak ospitaletara joaten dira irakasleei tailerrak modu autonomoan zuzentzen laguntzeko, bai eta ikasleek curriculumari segi dezaten laguntzeko ere.

Tailerretan, haurrek Museoa ikusgai dauden artelanen irudiak aztertzen dituzte, eta materialen, formen, artisten zein estiloaren inguruan solas egiten dute; gai horiek ikaskuntzarako estimulutzat baliatzen dituzte. Ondoren, haien sormen-lanak egiten dituzte.

2007tik 3.400 haur izan dira tailerretan. Aurtengo neguan *Gure garaiko arte: Guggenheim Bildumen maisulanak* eta *Niki de Saint Phalle* erakusketa izango dituzte gai.